


MANUEL SAGARNA GOIBURU 'BANDA'KO ZUZENDARIARI ELKARRIZKETA

## “Tilosetako kioskoa handitu egin behar da”



“Saxofoi jole asko dago eta baxu, oboe, eta abar falta dira.”

### ■ Herrian zer funtzio betetzen du bandak?

Banda musika ikasleentzat tranpolin bat da. Hernaniko jendearentzat oso bereziak diren musika eta ohiturak mantentzen ditugu: Gabonetako pasakallea, San Juane-tako diana, Errege egunekoa...

### ■ Zer instrumentu falta dira eta zer dago sobra?

Saxofoi jole asko dago baina baxu, oboe, eta abar falta zaizkigu.

### ■ Nola orekatu daiteke?

Musika eskola da gure harrobia eta musika eskolan orekatu

behar dira instrumentuak. Hernanin saxofoia, klarineta, tronpeteta eta perkusioa irakasten da. Eta banda batek osatzeko gutxienez 11 instrumentu

“Zineko musika sartzen hasi gara gazteak erakartzeko.”

ezberdin behar ditu. Eskoletan sartu behar da falta diren instrumentu horiek jotzeko afizioa.

□ **JAI:** HERNANIN, 1935ean

□ **BANDAN:** 1950AZ GEROZTIK SAXOA JOTZEN

□ **ZUZENDARI:** 1984AZ GEROZTIK

□ **LANA:** MONTES LARRU LANTEGIAN 40 URTEZ

□ **ZALETASUNAK:** PELOTA PARTIDUAK IKUSTEA

### ■ Entzulez nola zabiltzate?

Gazte jendea oso gutxi joaten da, baina helduagoak bastante hurbiltzen dira. Aurtengo San Juanetan inoiz baino entzule gehiago izan dugu.

### ■ Zer egin behar da gazteak kontzertuetara etortzeko?

Zineko musika sartzen hasi gara gazteei asko gustatzen baizaie. Ea gehiago etortzen diren!

### ■ Zer erreperitorio jotzen duzue?

Danetatik jotzen dugu: musika *errusiarra, eslaboa, italiarra...* Baina kontzertuetan beti piezarik garrantzitsuena etxekoa izaten da.

### ■ Leku aldetik zer moduz?

47 musiko gara eta ez gara Tilosetako kioskoan kabitzen. Kioskoa handitu egin behar da, hori baita tokirik onena jotzeko. □

## Boluetan hildakoak identifikatzeko ADN probak egin dituzte senideek

Ofizialki baieztatu ez arren, zihurtzat jotzen da hildakoetako bat Ekain Ruiz hernaniarra dela.



Atzo eguerdiko manifestazio amaiera.

ASTELEHENEKO auto leherketan hildako ETako lau ekintzaileen gorpuak identifikatzeko daude oraindik. Basurtoko ospitalean balizko 5 senitartekori ADN frogak egin zizkieten atzo hildakoenarekin alderatzeko.

### OFIZIALKI IZENIK EZ

Ofizialki hildakoen izenik eman ez badute ere, badirudi Ekain Ruiz eta Patxi Rementeria tartean direla. Gorpuen egoera medio, baieztapen ofizialak luze jo lezake.

### MOBILIZAZIOAK HERNANIN

13:00 eta 20:00etan manifestazioak egin ziren atzo, Hernaniko Ezker Abertzaleak-ek antolatuta. Ekain Ruizen argazkiarekin *Herriak ez du barkatuko* lemapean zeharkatu zituzten herriko kaleak.

Gaur bestalde, 17:00etan kotxe karabana irtengo da Gudarien Enparantzatik, eta 20:00etan manifestazioa izango da.

### BILBORAKO DEIA

Hernaniko Ezker Abertzaleak-ek autobusa antolatu du larunbatean Bilbora joateko. “Jen-deari Bilboko omenaldira agertu dadin eskatzen diogu” adierazi diote Kronikari. Txartelak Txili tabernan jarri dituzte salgai. □



Ekain Ruiz

### HERNANIKO MUSIKA BANDA

□ **Sortu:** XIX mende Erdian

□ **Zenbat partaide:** 47

□ **Ekitaldi ezagunenak:**

- San Juan eguneko kontzertua
- San Juan Preludioa
- San Juanetako diana
- Sandiusterriko abenduko kontzertua

- Gabonetako kalejira

- Errege eguneko kontzertua

- Sagardo eguneko kalejira

□ **Diskoa:** “Hernanin entzuna”

□ **Agenda:** Urritik aurrera, igandero udaletxeko arkupeetan kontzertua.



Argazkia: Hernaniko arkupea

“Kontzertuetan beti pieza garrantzitsuena etxekoa izaten da.”



ANDONI OLAZABAL  
Aseguru agentea

Juan de Urbietako 10 Behea  
Tel.: 943 33 03 60  
Faxa: 943 55 04 00  
20120 HERNANI



ETXE ONENAK, S.A.

GARAJE ITXIAK  
‘OBLATOS’ETAN  
SALGAI

Informatu eta saldu:  
☎ 943 33.22.37

## Molotoff irratia udan ere airean

Uztailaz gero martxan da udako programazioa, eta irailean osatuko da datorren urtekoa. Bolada honetan musika ezberdinek betetzen dituzte ordurik gehienak.



Hara Nagore inspirazio bila!

MOLOTOFF irratia ez du udako beroak isil arazten. 1987an sortu eta martxan da, hasieran udaletxeko gela batean eta orain Florianan.

### PROGRAMAZIOA

Arrakastarik haundiena goizeko magazinak du. *Hamaketoffen* informazioa eta musika tartekatuta osatzen dute 11:00etatik 13:00etarakoa. Bi erdi liberatuk egin dute lan hau urte osoan.

### IRRATI LIBREA

Gainerako programak gustu duenak egin ditzake. Ordaindu beharreko kuota, garbitasuna, eta arau batzuk betetzea besterik ez da eskatzen. Iaz 100 lagun aritu ziren 30 programatan. Kurtso berriko programazioa

irailean zehaztuko da.

### BAZKIDEAK

Oinarri ekonomikoa bazkideek ematen diote irratitari (nahi duena egin liteke). Aurten udala diru laguntza ematekotan

da, eta San Joanetako txozna ere diru iturri garrantzitsu bihurtu da.

Aurrerantzen irratia hartuko duen norabidea (profesionalizazioa, liberatuen lana...) eztabaidatzen ari dira orain. □

### UDAKO PROGRAMAZIOA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
10-11 =>	M	U	S	I	K A
11-13 =>	H A M A I K E T O F F (Uztaila-Iraila)				
	D I A P A S O I A (Abuztua)				
13-21 =>	M	U	S	I	K A
21-22 =>	DIODIANA	GARAJANOI	ANDER ETA		LET'S GO
			JULEN		
22-23 =>	GATZA	SOUND SYSTEM	KONTU KONTARI	PENTSAM. BAKARRA	AFONIA

## JASOTA BEZALA

### AIZKOLARITZA

Ezin ukatua da aizkolaritza oso errotua dagoena euskal kulturari. Kirol praktika honek, beste hainbat ezaugarri tarteko noski, euskaldun egiten gaitu; beste herriekiko berezitasunean nabarmenitzen gaitu. Hain kirol gogor eta berezia ez baita praktikatzeko badaezpada ere, Gaztelan edo eta Moliere erresuman.

Alabaina, ezin uka ere, kirol honek nahikoa une zailak bizi

dituena. Euskal gizartearen aldaketa anitz eman dira eta ondorioz, beste hainbat kirolen praktika nagusitu da. Egoera honetan, euskaldun senti garenok erantzunkizuna daukagu kirol hau desager ez dadin: aberastasun kultural hau galtzen uztea barka ezina baita!

Haatik, poztekoak dira aurten hartu diren zenbait ekimen kirol hau aurrera ateratzearen. Besteak beste MOR- KAIKOK antolatutako zuen herri-

ko aizkolarien txapelketa Santa Barbara auzoan, non jendearen asistentzia handia izan zen eta aizkolaritza indar-berriturik suertatu den (bihoazkie MOR- KAIKOK-ko partaideei zorionik beroenak lerro hauen bidez).

Idazki xume hau amaitu aurretik proposamentxo bat egin nahi nioke herriko udalari bereziki eta, auzoetako festen arduradunei orohar: herrikirolak sustatzea txapelketak e.a bultzatuz eta antolatuz, era horretara gazteen parte hartzea zuzpertz daitekeelakoan baikeude ezberrik gabe.

Roxario Pikabea

### ZUEN GUTUNAK:

Larramendi, 11  
Faxa: 943 336306  
E-Posta: kronika@topagunea.com

Oharra: Gehienez 800 karaktere (12 lerro makinaz). Gainontzean Kronikak bere gain hartuko du gutunak laburtzea. Bidali izen abizenak

## HITZ BITAN



Atzoko ferian bazen jenero ederrik!

### ✓ PELOTA

Esna eta Oiaga aurrez aurre bihar Ribavillosan. Bi hernaniar aurrelariak laguntasuna aldatzeko utzi beharko dute. Esna eta Oregi bikoteak Oiaga eta Mendiaren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Bihar, 22:30etan Ribavillosan (Nafarroan, Miranda de Ebro ondoan)

### ✓ KALE ISTILUAK

RENFEko tren geltokia geldirik 4 orduz. Boluetako auto leherketa dela eta ezezagun batzuk RENFEren aurkako ekintza burutu zuten atzo Hernanin. Ondorioz, Gaintxurizketatik Brinkolara doan tren geltokia egon zen 4 orduz.

### ✓ ERREMONTA

Zeberio IIak 35-22 irabazi zion atzo Altuna Itri 'Bingo Londres' torneoan. Partiduaren erdi alderarte markagailua zalantzan zegoen, lau tantuko alde izan baizen nabarmenena. Baina 24-21era iritsita gorriak eta bi ikusi behar izan zituen gerriko urdinez atera zenak. Zeberio IIak fresko fresko irabazi zuen partidua, eta hurrengo ostegunean Aizpururen kontra jokatuko txartela eskuratu.

Bihar, *Bingo Londres* torneoaren barruan final laurdenetako partidua jokatuko dute Urretabizkaia Iak eta Altuna Iak. □

### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943464622  
943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

### ✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Irigoyen  
Elkano, 2  
☎ 943552087
- ▶ Gaez: Oa  
Usurbil, 1 Poligonoa, 1  
☎ 943376076

## Zure publizitatea hemen

# HERNANIK kronika

☎ 943 330899

kronika@topagunea.com